



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2014ko ekainaren 20a

78. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Foru Lege proiektua, Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Legea hein batean aldatzen duena, Nafarroako tributuen arloan jakinarazpen elektronikoa sustatzeko (3. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Mozioa. Horren bidez, Errege Etxea premiatzen da etorkizuneko Leonor printzesak ez dezan “Vianako Printzesa” titulua izan. Patxi Leuza García jaunak aurkeztu du (8. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Foru Komunitateko enpresa publikoak Genero Indarkeriarik gabeko Gizarte baten aldeko Enpresen Sareari atxiki diezazkion. Ana Beltrán Villalba andreak aurkeztu du (9. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da lehenbailehen gara dezan FOGA funtsa (Mugaldeko Gaixoen Arretarako Berme Funtsa). Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (10. or.).

—Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak aldekotasuna eta elkartasuna adierazten baitie Sometec-eko langileei. Eledunen Batzarrak onetsia (11. or.).

—Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuari eskatzen baitio atzera bota dezan energia berriztagarriei buruzko araudi berria. Eledunen Batzarrak onetsia (11. or.).

F SAILA:

Galderak:

—Galdera, Nafarroa EAE-Akitania euroerregioan sartzeari buruzkoa, Manu Ayerdi Olaizola jaunak egin (12. or.).

—Galdera, Foru Hobekuntzaren 54. artikulua indarrez Nafarroari dagokion Gizarte Segurantzaren kudeaketa propioa ez erreklamatzeko Nafarroako Gobernuak duen jarrerari buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egin (13. or.).

—Galdera, Industria Planaren prestaketari buruzkoa, Ana Beltrán Villalba andreak egin (14. or.).

—Galdera, Hezkuntza Departamentuak 72/2012 Dekretua mantentzearen inguruan daukan asmoari buruzkoa, Nekane Pérez Irazabal andreak egin (14. or.).

- Galdera, jakitekoa zer urrats egin dituen Hezkuntza Departamentuak Haur eta Lehen Hezkuntzako ikasle-en elikadura-gabeziako kasuak detektatzeko, Nekane Pérez Irazabal andreak egina (15. or.).
- Galdera, Gasteiz eta Iruñearen arteko trenbide-loturari buruzkoa, Manu Ayerdi Olaizola jaunak egina (16. or.).
- Galdera, Bonelli arranoaren populazioa lehengoratzeko Life Bonelli proiektua aurrera eramateari buruzkoa, Víctor Rubio Martínez jaunak egina (17. or.).
- Galdera, industria berrabiarazteko planari buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (18. or.).
- Galdera, udalen jabetzako ikastetxeetan obrak egiteko laguntzen deialdiari buruzkoa, Miren Julia Aranoa Astigarraga andreak egina (19. or.).
- Galdera, Gizarte Segurantzaren Diruzaintzak Nafarroako Gobernuari egindako erreklamazioari buruzkoa, Manu Ayerdi Olaizola jaunak egina (19. or.).
- Galdera, ikastetxeetan pedikulosiaren ondoriozko infekzioei aurrea hartzeko eta haiek kontrolatu eta saihesteko hartu diren eta hartu nahi diren neurriei buruzkoa, Ana Beltrán Villalba andreak egina (20. or.).
- Galdera, Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salak 2012ko apirilean emandako epaia betetzeari buruzkoa, zenbait errepede tarte konpontzeari dagokionez, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (21. or.).
- Galdera, Europar Batasunak 2014-2020 aldirako emandako egiturazko funtsen exekuziorako oinarritzko proposamenari buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (21. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- “Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.M.P.” izeneko sozietatearen administrazio kontseiluaren erabakia (23. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Legea hein batean aldatzen duena, Nafarroako tributuen arloan jakinarazpen elektronikoa sustatzeko.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko ekainaren 16an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-tzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artiku-luak aitortzen dion legegintzarako ekimena erabi-liz, Nafarroako Gobernuak, 2014ko ekainaren 11n hartutako erabakiaren bidez, Nafarroako Parla-mentura igorri du Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Legea hein batean aldatzen duen Foru Lege proiektua, Nafarroako tributuen arloan jakinarazpen elektronikoa sustatzeko.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 127. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Ba-tzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Prozedura arruntari jarraikiz izapidetzea Tri-butuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Legea hein batean aldatzen duen Foru Lege proiektua, Nafarroako tributuen arloan jakinaraz-pen elektronikoa sustatzeko.

2. Proiektu horretaz irizpena emateko ahalme-na Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Ba-tzordearen esku uztea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziale-an argitara dadin agintzea.

Proiektua argitaratzen denetik, **hamabost egun balioduneko epea hasiko da eta 2014ko irailaren 12an, eguerdiko hamabietan, bukatuko da.** Epe horretan, Erregelamenduko 128. artiku-luan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahalko dizkiote proiektuari.

Iruñean, 2014ko ekainaren 16an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Lege proiektua, Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Legea hein batean aldatzen duena, Nafarroako tributuen arloan jakinarazpen elektronikoa sustatzeko

ZIOEN AZALPENA

Nafarroako tributuen arloan jakinarazpen elek-tronikoa sustatzeko helburua lortzeko, mota asko-tariko ekimen eta neurriak behar dira, eta neurri esanguratsuenetariko bat foru lege honen bitartez egiten den lege-aldaketa da.

Azken urteotan teknologia berriak apurka-apur-ka baina etengabe sartu dira Nafarroako Zerga Ogasunean. Zerbitzu batzuetan (aitorpenak aur-keztu eta kontsultatzeko, zerga-zorrrak ordaintzeko, zerga-informazioa deskargatzeko, ereduak eta inprimakiak erabiltzeko eta ziurtagiriak eskura-tzeko, besteak beste) argi ikusten da zerbitzu tele-matikoak gero eta maizago erabiltzen dituztela herritarrek. Nafarroako Zerga Ogasuna erakunde autonomoak zerbitzu telematikoak herritarren eskura jarri ditu Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioak modu zuzen, erraz eta eraginko-rrean egin ditzan tributuen kudeaketa eta bilketa. Prozedura administrazioaren kontura da betiere.

Bide telematikoan aurkezten diren zerga-aitor-penen kopurua izugarri handitu da, eta Zerga Administrazio berriaren garapenaren adierazgarri nabarienetariko bat izan da herritarrentzat. Hala ere, herritarrek hasi eta Zerga Administrazioak bukatzen duen harreman elektronikoa hori osatu egin behar da, komunikazioa osoagoa bihurtzeko eta bi norabideetako izan dadin. Horretarako, jakinarazpen elektronikoa ezarri eta sustatuko da tributuen arloan. Helburu hori lortzeko, Foru Komu-nitatearen zerga-antolamenduak beste pauso bat eman nahi du teknologia modernoan errealitate berrira egokitzeko, eta badaki jakinarazpen elek-tronikoak administrazio elektronikoaren agerbide

garrantzitsuenetariko bat direla. Jakinarazpen elektronikoen oinarrian, herritarren, enpresen eta Zerga Administrazioaren arteko harremana eta komunikazioa ulertzeko beste modu bat dago, betiere segurtasun juridikoa behar bezala babes-tua duena.

Horrez gainera, nabarmendu beharra dago jakinarazpen elektronikoa egiteko onura garrantzitsuak lortzen direla efizientzia administratiboaren ikuspuntutik: batetik, paperezko jakinarazpena jaso dela egiaztatzen izan ohi diren zailtasunak gainditzen direlako, eta, bestetik, izapide administratiboak (eta, horren ondorioz, jakinarazpenaren denbora eta kostuak) nabarmen murrizten direlako.

Jakinarazpen elektronikoa dagoeneko ezarrita dago Nafarroan, Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorrak eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan administrazio elektronikoa ezartzeari buruzko apirilaren 4ko 11/2007 Foru Legeak arautzen baitute, baina ezin da ukatu praktikan gutxi erabiltzen dela eta, tributuen arloan, premiazkoa dela hura sustatu eta estimulatzea, dudarik ez baitago interes publikoarentzat eta herritarren eta enpresen interesentzat onuragarria izanen dela. Helburu horrekin, eta tributudunentzako zerbitzuen kalitatea etengabe hobetzea xede delarik, Nafarroako Zerga Ogasuneko lan-talde batzuek urtebete baino gehiago daramate atariko azterlan eta lanak programatzen eta egiten, Foru Komunitateko zerga-jakinarazpen elektronikoen behin-betiko garapen eraginkorra posible izan dadin behar diren aldaketa teknologikoak eta bitartekoenak prestatzeko.

Bestetik, komeni da azpimarratzea zerga-prozeduretan, edozein prozedura administratibotan bezala, berebiziko garrantzia duela egintzak eta ebazpenak behar bezala jakinarazteak, horren bidez tributudunari formalki jakinarazten baitzaio egintza edo ebazpena, eta, hain zuzen, egintzaren eraginkortasuna jakinarazpen horren ondorio baita eta jakinarazpenari esker administratiboak egintzaren edukia zehazki ezagutzen eta, nahi izanez gero, inpugnatzen ahal baitu. Jakinarazpena ez da baldintza bat egintza administratiboa baliozkoa izateko, baina bai, ordea, eraginkorra izateko; izan ere, bidezkoak diren errekursoak aurkezteko epeen zenbaketa jakinarazpenarekin batera hasten da.

Beraz, jakinarazpenek oso eginkizun garrantzitsuak dituzte prozedura administratiboetan, egintzaren edukia aditzera ematen baitute, eta, modu horretan, ukituari aukera ematen dio komenigarritzat jotzen dituen neurriak hartzeko. Jakinarazpe-

na berme bat da administratuentzat. Horregatik, egintza formal eta bermatzailetzat hartzen da eta zorroztasuna da nagusi baldintzak betetzeko orduan; izan ere, jakinarazpenak akatsen bat badu, ez du ondorioz sortzen, salbu eta baliozko-tzen bada, modu horretan bidezko ondorioak sortzen baitira. Uler daiteke egintza administratiboa ez dela benetan eraginkorra alde aurretik arauzko jakinarazpena egin ez bada. Horregatik, egintza administratiboak sortutako zerga-zorra sartzeko epeak jakinarazpena egiten denetik hasiko dira zenbatzen.

Foru Komunitateko tributuen arloko arauetan, jakinarazpena Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorraren 99. artikuluan arautzen da bereziki. Esan daiteke manu horretan araututakoak ongi bete duela bere eginkizuna azken urteotan; baina ikusirik, batetik, jakinarazpenen praktikan metatutako esperientzia eta, bestetik, jakinarazpen elektronikoa eman behar zaion bultzada, komenigarria da hura aldatzea. Hortaz, aipatutako 99. artikuluan baliabide elektronikoen bidezko jakinarazpena arautua badago ere, beharrezkoa da haren edukia hobetzea, behar bezala garatzeko eta gaur egun jakinarazpen elektronikoa egiteko dauden moduetara egokitzeko.

Lege beraren 26. artikulua ere aldatu da, haren edukia handitzeko eta eguneratzeko, bereziki jakinarazpenaren kasu bereziei dagokienez.

Foru lege proiektuak jakinarazpenaren erregulazioan sartutako hobekuntzak honako hauek dira:

1.a. Aipatu 26. artikuluan, titular bat baino gehiago daudenean, kasu gehiago sartu dira, edozein zerga-betebeharretara hedatzeko, eta bakarrik zergapeko egintzara ez mugatzeko. Aurrekoaz gainera, bigarren lerroaldea gehitu da kasu hau arautzeko: titular bat baino gehiago badaude ere, Zerga Administrazioak soilik horietako baten identitatea ezagutzen duenean. Kasu horretan, Administrazioak likidazioa eta jakinarazpena ezaguna den titularrari eginen dizkio, eta honek betebeharra osorik bete beharko du, salbu eta ordaindu behar duten gainerako titularren datu zehatzak eta proportzioa ematen baditu. Esperientziak erakusten du araubide hori lagungarria izanen dela ondoko arazoak konpontzen besteak beste: familia unitateei PFEZari buruzko jakinarazpena egiten zaienean; oinordeko bat baino gehiago daudenean Oinordetzaren eta dohaintzen gaineko zergen; eta erantzukizunaren deribazioaren jakinarazpena pertsona batek baino gehiagok jasotzen ahal dutenean.

2.a. 99. artikuluan 1. idatz-zatian zehazten da jakinarazpena zerga-prozedura guztietarako arau-

tzen dela, barne direlarik zehapenak jartzen dituztenak eta errekurtsioak eta erreklamazio ekonomiko-administratiboak bideratzen dituztenak. Zehaztapen hau garrantzitsua da honen inguruan sortutako zalantzak argitzeko: manua aipatu zerga-prozeduretan aplikatzen ahal den ala ez.

3.a. Egin ohi den paperezko jakinarazpenari dagokionez, 2. idatz-zatiari bi xedapen garrantzitsu gehitu zaizkio. Batetik, behar bezala arautu da zer egin behar den jakinarazpena ematerakoan tributuduna hila dela edo haren nortasun juridikoa iraungi dela jakinen balitz. Bestetik, jakinarazteko beste modu bat ezarri da: posta-zerbitzu unibertsala esleituta duen operadoreak ezarritako posta-kutxetan uztea egintza edo ebazpena.

Horrez gainera, jakinarazpenaren eduki bermatzailea osatzen da, 4. idatz-zatian zer egin berariaz arautzen baita jakinarazteko bi saiakerak emaitzarik gabe egin direnean; kasu horietan, "iritsi izanaren abisua" etxeko gutun-ontzian utziko da, eta interesdunari aditzera emanen zaio administrazioaren egoitzara agertzeko aukera duela ezartzen den epean egintza jasotzeko. Bestetik, egun gehiago ezarri dira bertan agertuz egiten diren jakinarazpenetarako iragarkiak Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzeko: hilabeteko asteazken guztiak.

2. eta 4. idatz-zatietan sartzen diren xedapen berri gehienak Postetxeen Erregelamenduan ezarritakotik datoz, egiaztatu baita hainbat eginkizun dituztela eta jakinarazpen administratiboan eragin-kortasuna handitzen dutela.

4.a. Jakinarazpen elektronikoei dagokienez, erabat aldatzen da 99. artikuluko 5. idatz-zatia, munta handiko aldaketak egin baitzaizkio. Lehenik, ezarri da, jakinarazpen mota hau posible izan dadin, alde aurretik interesdunak berariaz eskatu edo baimendu behar izan duela. Hau da, ez da aski izanen lehentasunezko zatitza.

Bigarrenik, aurrekoa galarazi gabe, erregelamenduzko arauari gaikuntza ematen zaio derrigorrezko jakinarazpen elektronikoa ezartzeko pertsona juridikoei (zehatzago: pertsona fisikotzat jotzen ez direnei), baita pertsona fisikoan multzo jakin batzuei ere (betiere behar diren bitarteko teknologikoez baliatzen ahal direla egiaztatu bada). Lehen begiratuan inposizio eta karga kutsua duela badirudi ere, betebeharrak benetan aurrera egin nahi da Zerga Administrazioa eraginkorragoa eta gertuagoa izan dadin. Hortaz, oro har, Herritarrek Zerbitzu Publikoetara Bide Elektronikoz Sartzeari buruzko ekainaren 22ko 11/2007 Legeak bide ematen du lerroalde honetan aipatutako kolektiboak betebeharrak ezartzeko Administrazioa-

rekin dituzten harremanetan soilik bide elektronikoa erabiltzeko, betiere behar diren tresna informatikoez baliatzeko baldintzak betetzen badituzte. Bestetik, berariaz aipatzen ez bada ere, zergen arloko idazki eta aitortpen guztiak telematikaren bidez aurkeztera behartuta dauden pertsona talde eta entitateek bete beharko dute jakinarazpen elektronikoa egiteko betebeharrak. Hau da, ez du ekarriko haien zama edo zailtasun berezirik, ez ezezagunik.

Hirugarrenik, argi uzten da jakinarazpen elektronikoa egiaztatu egin behar duela jakinarazpenaren xedeko egintza zer egun eta ordutan jarri den interesdunaren eskura, baita interesdunak noiz ikusi duen edukia. Baldin eta, jakinarazpena interesdunaren eskura jarri dela ziurtatuta, hamar egun naturaleko epea pasatuta mezua ireki ez bada, jakinarazpena errefusatzat joko da. Azkenik, erregelamendu bidez finkatuko da jakinarazpen elektronikoa praktikan nola egin. Erredakzioa espresuki irekia da, teknika informatikoetan etengabe gertatzen baitira berrikuntzak. Hori hala delarik ere, hasieran lehentasunezko zatitza aukeratutako mota HEGen bidezko jakinarazpena da (helbide elektronikoa gaituaren bidezkoa). Helbide elektronikoa gaituaren bitartez, edozein pertsona edo entitatek helbide elektronikoa bat izan dezake bide elektronikoz egiten diren jakinarazpen elektronikoa jasotzeko. Zerbitzu hau -dohainekoa da jakinarazpenaren hartzailearentzat, eta erabat betetzen ditu isilpekotasunaren eta egiazkotasunaren bermeak- erabilieta da gaur egun, alde handiz, jakinarazpen elektronikoa egiterakoan.

Tributuen arloan jakinarazpen elektronikoa arautzerakoan, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan administrazio elektronikoa ezartzeari buruzko apirilaren 4ko 11/2007 Foru Legearen printzipio orokorrak aplikatzen dira, nahiz eta zenbait berezitasun ezarri diren, aipatu foru legearen hirugarren xedapen gehigarriaren 1. atalean xedatutakoari jarraikiz, tributuei buruzko prozeduren berezitasunei dagokienez, hain zuzen ere hau baitio: "Foru lege honetan ezarritakoa zaie tributuen prozedurei baizik ez zaie aplikatuko, betiere beren arau berezietan xedatutakoaren kontra ez badao".

Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduen Testu Bateginaren 157. artikuluan ezarritakoaren babespean, haren edukia izan eta soiltasuna eta foru legearen helburuak aintzat harturik, zuzenean tramitatu nahi da, eta Parlamentuaren Osoko Bilkuran irakurketa bakarra eginez.

Artikulu bakarra. Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorren aldaketa.

Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Legearen agindu hauek honako eduki hau izanen dute:

Bat. 26. artikulua. Titular bat baino gehiago direnean.

“26. artikulua. Titularren bateragarritasuna.

Aurrekontu berean edo betebeharra sortzen duen elementuan tributudun bat baino gehiago biltzen badira, denak solidarioki daude behartuak obligazio horretan sartzen diren prestazio guztiak betetzera, salbu eta lege mailako arau batean espresuki besterik xedatzen bada.

Administrazioak obligazioaren titular bakar baten berri izaten duenean, huts-hutsik haren ize-nean egin eta jakinaraziko du ebazpena edo, bidezko balitz, tributu-likidazioa, eta harena izanen da betebeharrak guztia, salbu eta, betebeharra dirua ordaintzea izateagatik, obligazioaren zatiketa eskatzen ez badu. Zatiketa hori egin ahal izateko, ezinbestekoa izanen da eskatzaileak aditzera ematea zein diren betebeharrak duten gainerakoak eta bakoitzari nolako proportzioa dagokion”.

Bi. 99. artikuluko 1. idatz-zatia.

“1. Tributu desberdinak kudeatu, likidatu, egiaztatu, ikertu eta biltzeko prozeduretan, baita zehar-prozeduretan eta zergei buruzko errekurtso eta erreklamazioetan oinarri direnetan ere, jakinarazpenak egiteko modua erabakitzerakoan, ziurtatua gelditu behar du interesatuak edo haren ordezkariak jakinarazpena jasotzen duela, baita nork, noiz eta zer jaso duen jakinarazpena.

Egindako jakinarazpenaren egiaztapena espedienteari erantsiko zaio”.

Hiru. 99. artikuluko 2. idatz-zatia.

“2. Jakinarazpena honako tokietan egiten ahal da: zerga ordaintzera behartua dagoenaren edo bere ordezkariaren helbide fiskalean, lantokian, jarduera ekonomikoa garatzen den tokian, halakorik baldin badago, edo tributudunak edo haren ordezkariak horretarako esandako tokian, edo horretarako egokia den beste edozeinetan.

Jakinarazpena egiterakoan tributuduna hila dela jakinen balitz, edo haren nortasun juridikoa iraungi dela, horren berri eman beharko da. Zerga Administrazioaren ardura izanen da hala dela egiaztatzea. Kasu hauetan, jakinarazpena prozedurari amaiera ematen dion ebazpenari buruzkoa denean, jarduketa hori jakinarazpen saiakeratzat hartuko da, baina bakar-bakarrik prozeduren

gehieneko epean jakinarazi beharra bete izanaren ondorio hutsetarako.

Jakinarazpena egiteko bidea posta-zerbitzu unibertsala esleituta duen operadoreak ezarritako posta-kutxa denean, bidalitakoa bulegoaren barrenean utziko da, eta titularrak berak edo espresuki baimendutako pertsonak jasotzen ahalko du kutxatik. Bidalitakoak bulegoan hamar egun natural eginik, jakinarazpena egintzat hartuko da. Jakinarazteko bide hau erabiltzez gero, interesdunak lehenasunez hartuko izan behar du”.

Lau. 99. artikuluko 4. idatz-zatia.

“4. Administrazioari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik ezin bada jakinarazpenik egin, eta gutxienez bitan egin bada saiakera zerga helbidean edo tributudunak edo haren ordezkariak horretarako adierazitako lekuan, espedientean jasoko dira jakinarazteko saiakeren inguruabarrak. Hartzailea ezezagun gisa ageri bada helbide edo leku horretan, saiakera bakar bat aski izanen da. Jakinarazteko bi saiakerak arrakastarik gabe eginik, posible denean, hartzaileari iritsi izanaren abisua utziko zaio hartzaileari etxeko gutun-ontzian, eta aditzera emanen zaio, bikoizturik eginen den eginbidean, zerga administrazioaren egoitzara agertzeko aukera duela ezartzen den epean jakinarazpena jasotzeko. Azalduko zaio, orobat, zein izan diren jakinarazpena egiteko bigarren saiakerari buruzko inguruabarrak. Irtsi izanaren abisu hori ondorio informatikoetarako baizik ez zaio utziko.

Atal honetan aurreikusi eta jakinarazpena egiterik izan ez den kasuetan, tributudunari edo haren ordezkariari zitazioa egiten zaio jakinarazpena jasotzera ager dadin. Zitazioa Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko den iragarki bakar baten bidez egiten da. Hilabete bakoitzeko asteazketan argitaratuko dira iragarki horiek, edo, egun horietan aldizkari ofizialik argitaratzen ez bada, aldizkaria ateratzen den lehenbiziko egunean. Iragarki horiek zerga administrazioaren beste bulego batzuetan ere jartzen ahalko dira jendaurrean. Bulego horiek zein diren erregelamendu bidez zehaztuko da. Aipatu diren iragarki horiek egiteko baliabide informatikoak, elektronikoak eta telematikoak erabiltzen ahal ditu zerga administrazioak, betiere tributu arloko araudiak ezartzen duenarekin bat.

Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denean, egiteko dauden jakinarazpenen zerrenda agertuko da, honakoak agerrarazteko: tributuduna edo haren ordezkaria, oinarrian den prozedura, tramitazioaz arduratzen den organoa, eta horien hartzaileak jakinarazpena jasotzeko non eta zein epetan agertu behar duen. Nolanahi ere, agerral-

dia hamabost egun naturaleko epean eginen da, iragarkia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita. Epe hori iragaten bada bulegora agertu gabe, jakinarazpena egintzat hartuko da, legezko ondorio guztietarako, agertzeko ezarritako epea bukatu eta biharamunean.

Tributuduna edo bere ordezkaria ez agertzeagatik prozedura baten hasiera edo bere tramiteetako edozein jakinarazitzat hartzen bada, jakinarazitzat hartuko da prozedura horren ondoko jarduera eta eginbideetan ere. Ez du galduko, nolana ere, beste edonoiz bertara agertzeko eskubidea. Nolanahi ere, prozeduran egiten diren likidazioak eta bahitutako ondasunak besterentzeko ebazpenak artikuluko honetan ezarritako moduan jakinarazi behar dira betiere.”

Bost. 99. artikuluko 5. idatz-zatia.

“5. Jakinarazpena bide elektronikotik egin ahal izateko, interesdunak espresuki egin beharko du horretarako eskaera edo horretarako baimena eman.

Arestian aipatutakoa deusetan ukatu gabe, erregelamendu bidez finkatzen ahalko da nahitaezkoa dela jakinarazpen elektronikoa egitea pertsona fisiko ez diren tributudunei eta, gaitasun ekonomiko edo teknikoagatik, dedikazio profesionalagatik edo egiaztatutako beste arrazoren batengatik, behar diren bitarteko teknologikoez baliatzeko bidea bermatua duten pertsona fisikoei.

Jakinarazpen elektronikoen sistemak aukera eman behar du zehatz jakiteko zer egun eta orduetan bidali zaion interesdunari jakinarazpena, baita interesdunak noiz ikusi duen edukia. Jakinarazpena, une hartatik aurrera, egintzat hartuko da ondorio legal guztietarako.

Baldin eta, interesdunari jakinarazpena bidali zaiola ziurtatuta, hamar egun naturaleko epea pasatuta mezua ireki ez bada, jakinarazpena errefusatzat joko da, artikuluko honetako 3. idatz-zatian ezarritako ondorioekin, salbu eta, ofizioz edo hartzaileak eskaturik, mezua eskuratzeko ezintasun tekniko edo materiala dagoela frogatzen bada.

Jakinarazpen elektronikoen modu hauetakoren bat erabiliz eginen dira, erregelamendu bidez ezarritakoari jarraikiz betiere:

a) Helbide elektronikoen gaituaren bitartez.

b) Jakinarazpena jaso izanaren adierazpena duen posta elektronikoen sistemaren bat erabiliz.

c) Ezar litekeen beste bideren bat erabiliz, betiere araubide berariazkoan ezartzen diren epe eta baldintzetan jakinarazpena jaso ote den ziurtatzen bada.”

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra.

E saila:

JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Errege Etxea premiatzen da etorkizuneko Leonor printzesak ez dezan “Vianako Printzesa” titulua izan.

PATXI LEUZA GARCÍA JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko ekainaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Leuza García jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Errege Etxea premiatzen baita etorkizuneko Leonor printzesak ez dezan “Vianako Printzesa” titulua izan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean agitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2014ko ekainaren 16an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Patxi Leuza García, foru parlamentari den aldetik eta Legebiltzarreko Erregelamenduko 196. artikuluan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Legebiltzarraren Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

"Vianako Printzea" titulua Nafarroako erresumaren oinordekoari loturik egon zen. Nafarroako erresuma 1839an desagertu zelarik, Nafarroako erresumaren oinordekoa desagertu zen; hortaz, tituluak balio oro galdu zuen. Titulu horrek, gainera, dinastia borboitarren erdeinua jaso zuen, Felipe V.ak eta bere ondorengoek Nafarroan "Asturiasko Printzea" titulua ezarri nahi izan zutenetik, nahiz eta erresuma honek errege horri babesa eman zion Ondorengotza Gerran; horregatik gorde ziren foruak eta erakunde berekiak. Nafarroako Gorteen Vianako titulua zenbait alditan erreibindikatu zuten XVIII. mendean zehar, batere

arrakastarik gabe, borboitarrek entzungor egiten jarraitu zutelako.

Espainiako konstituzio monarkiko guztiek "Asturiasko Printzea" titulua baino ez zuten aintzat hartu.

1978ko Konstituzioaren 57.2 artikulua ezarri duenez, "Printze oinordekoak, jaiotzaz geroztik edo deituz eragiten duen gertaeraz geroztik, Asturiasko Printze titulua beretuko du, eta, orobat, tradizioz Espainiako Koroaren oinordekoari lotuak diren gainerako tituluak". Arau bitxia da, zeinetan a posteriori ikusi nahi izan baita, besteak beste, "Vianako Printzea" titulua. Baina, egiaz, garai hartan inork ere ez zuen pentsatzen titulu horiek proiektio publiko bat zeukatenik.

Izan ere, Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren ez aitzinsolasean ez atariko tituluko ezein artikulutan ez zen halakorik jaso. Espainiako Errege Familiaren Erregistro Zibilari buruzko azaroaren 27ko 2917/1981 Errege Dekretuan ere ez zen "Vianako Printzea" titulua aipatu –Asturiasko Printzea soilik aipatzen zen–, ez eta Felipe Borboikoak Konstituzioari eta Erregeari 1986ko urtarrilaren 30ean egin behar izan zien leialtasun-zinean ere.

"Vianako Printzea" tituluaren eta Felipe Borboikoaren arteko identifikazioa ez zen 1993ra arte hasi Nafarroan. Juan de Borbón y Battenberg-en ideia izan zen Vianako titulua inbokatzeara, eta Nafarroako orduko lehendakariak begi onez hartu zuen proposamena.

Hortaz, historiari argi uzten du "Vianako Printzea" titulua Nafarroako erresumari eta haren eskumenei loturik dagoela. Nafarrek erabaki dezakete, baldin eta inork erabaki badezake, titulua Espainiako Errege Etxeari lagatzen dioten ala ez. Bere garaian ez zitzaion galdetu, eta horrenbestez Nafarroako Parlamentuak izan behar du, Nafarro-

ako Gorteen oinordeko zuzenena den heinean, titulu hori erretira dadila erreklamatzearen ardura.

Hori guztia dela-eta, parlamentari honek ondoko erabaki-proposamena aurkezten du:

Nafarroako Parlamentuak Errege Etxea premiatzen du etorkizuneko printzesa Leonorri "Asturiasko Printzesa" titulua bakarrik eman

dakion, eta ez "Vianako Printzesa" titulua; izan ere, titulu hori jadanik desagertua den Nafarroako erresumari loturik ageri da, eta ez Espainiako erresumari.

Iruñean, 2014ko ekainaren 9an

Foru parlamentaria: Patxi Leuza García

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Nafarroako Foru Komunitateko enpresa publikoak Genero Indarkeriarik gabeko Gizarte baten aldeko Enpresen Sareari atxiki diezazkion.

ANA BELTRÁN VILLALBA ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko ekainaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Beltrán Villalba andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita Nafarroako Foru Komunitateko enpresa publikoak Genero Indarkeriarik gabeko Gizarte baten aldeko Enpresen Sareari atxiki diezazkion.
2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.
3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2014ko ekainaren 16an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Ana Beltrán Villalba andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta onesteko. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Nafarroako Foru Komunitateko enpresa publikoak Genero Indarkeriarik gabeko Gizarte baten aldeko Enpresen Sareari atxikitzen

Iragan ekainaren 9an, Osasun Ministerioak iragarri zuen enpresa publiko nagusietako sei atxiki zaizkiola Genero Indarkeriarik gabeko Gizarte baten aldeko Enpresen Sareari, zeina 2012an sortu baitzen emakumearen aurkako indarkeriari buruz sentsibilizatzeko eta biktimen gizarteratzea sustatzeko. Sareari 62 konpainia atxiki zaizkio, eta bi entitate laguntzaile ditu. Enpresen Sareak bere sorreratik 1.426 kontratu egin dizkie genero indarkeriaren biktima izan diren emakumeei, eta halatan laguntza eman die indarkeriatik irteteko independentzia ekonomikoa izateko.

Nafarroako Parlamentuak, 2013ko urriaren 31n egindako Osoko Bilkuran, Parlamentu-talde Popularrak aurkeztutako erabaki bat onetsi zuen, Nafarroako Gobernuak premiatzen zuena bere babesa adieraz ziezaion Genero Indarkeriarik Gabeko Gizarte baten aldeko Enpresen Batasunari, eta atxikimendua bultzatzea. Indarkeria hori sentsibilizazioaren bidez desagerrarazteko xedez eta denon ahalegina batzeko xedez, Parlamentu-talde Popularrak honako erabaki proposamen hau aurkeztu du:

Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du Nafarroako Foru Komunitateko enpresa publikoak Genero Indarkeriarik gabeko Gizarte baten aldeko Enpresen Sareari atxiki diezazkion.

Iruñean, 2014ko ekainaren 12an

Foru parlamentaria: Ana Beltrán Villalba

Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da lehenbailehen gara dezan FOGA funtsa (Mugaldeko Gaixoen Arretarako Berme Funtsa).

SOCIALISTAS DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko ekainaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premiatzen baita lehenbailehen gara dezan FOGA funtsa (Mugaldeko Gaixoen Arretarako Berme Funtsa).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2014ko ekainaren 16an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Roberto Jiménez Alli, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldearen eledunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozka dadin. Mozioaren bidez, Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du lehenbailehen gara dezan FOGA funtsa (Mugaldeko Gaixoen Arretarako Berme Funtsa).

2014ko ekainaren 12an egindako Osoko Bilkuran, galdetu zitzaionean ea zergatik ezin zen eza-

rri hitzarmen bat Errioxako Gobernuarekin, San Adriángo nahiz inguruko herritarrak patologia batzuetarako "Hospital Calahorra" Fundazioan artatuak izan daitezzen –Viana aldeko biztanleei hitzarmen bidez zerbitzua ematen zaien bezalaxe–, Osasuneko kontseilariak onartu zuen arrazoiak dela Errioxako Gobernuak ez duela hitzarmen bat lortzeko aurrerabiderik egin nahi harik eta Osasun Ministerioak mugaldeko gaixoen arretarako berme funtsa ezarri arte.

Gure ustez, garrantzitsua da, baita politikari sinesgarritasuna emateko ere, gobernu ezberdinek erakustea gai direla herritarren mesedetan akordioak lortzeko. Horregatik hain zuzen ere uste dugu akordioak lortzeko atzerapen honek, politikaren nahiz haren lorpenen inguruko seinale positiboak eman ordez, politika hutsaltzen eta alferriko bihurtzen duela.

Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua eta Osasun Ministerioa premiatzen ditu al bait azkarren buka dezaten mugaldeko gaixoen arretarako berme funtsaren nondik norakoak zehazten, halako moldez non besteak beste San Adriángo biztanleei arreta eman ahalko baitzaie "Hospital Calahorra" Fundazioan, Errioxako Gobernuarekiko kasuko lankidetzaz hitzarmenaren bidez.

Iruñean, 2014ko ekainaren 12an

Eleduna: Roberto Jiménez Alli

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak alde-kotasuna eta elkartasuna adierazten baitie Sometec-eko langileei.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2014ko ekainaren 16an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak aldekotasuna eta elkartasuna adierazten die Sometec-eko langileei, beren lan baldintzen eta eskubideen defentsan egiten ari diren mobilizazioetan.

2. Nafarroako Parlamentuak adierazten du beharrezkoa dela ISNk Sometec-eko plantillarekin dituen betebeharrak bete ditzan.

3. Nafarroako Parlamentuak adierazten du beharrezkoa dela Gamesak bere kode etiko eta erantzukizun sozialekoak inposatzen dizkion betebeharrak errespetatu eta bete ditzan ISNri dagokionez (Sometec).

4. Nafarroako Parlamentuak uste du Accionak baloratu egin behar duela enpresa hori ISNri saltean Sometec-eko langileei sortutako egoera, eta neurri egokiak hartu behar dituela”.

Iruñean, 2014ko ekainaren 16an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuari eskatzen baitio atzera bota dezan energia berriztagarriari buruzko araudi berria.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2014ko ekainaren 16an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuari eskatzen dio atzera bota dezan energia berriztagarriari buruz onetsi berri duen araudia, araudi desegoki bat izateagatik. Larriki urratzen ditu ingurumenaren arloan herri gisa hartuak ditugun konpromisoak, eta hondatu egiten du sektore bat, oro har enplegu-esparru garrantzitsu bat eta erreferente bat osatzen duena, nazioartean abangoardiako teknologia berrien ikerketarekin eta garapenarekin zerikusia duen guztian.

2. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuari eskatzen dio sektoreko ordezkarietako egiazko negoziazio-bideak berrireki ditzan, egoera hau bideratu ahal izan dadin, zeinak kaltetzen baititu enpresen interesak ez ezik, inbertsiogile txiki askoren interesak ere –bereziki, horiek–, Nafarroan, energia berriztagarrietan administrazioek berek bultzatuta inbertitu zutenenak.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua animatzen du araudi hau nahiz beste edozein bidegabeko araudi berri errekurri dezan,

berekin dakarten segurtasun juridikorik eza oinarri, Foru Komunitatearen interes orokorren defentsa-keinu gisa, Foru Komunitateak energia-mota horren aldeko apustu irmoa egin baitzuen bere garaian, bai eta inbertsio gisa energia garbiaren aldeko apustua egiteko urratsa egin zuten milaka nafarren interesen defentsa-keinu gisa ere.

4. Nafarroako Parlamentuak nahitaezkotzat jotzen du Nafarroako Gobernuak Espainiako Gobernuari planteatu diezaion autokontsumoari lotutako teknologia-mota hau ikertu eta garatzeko proiektuei bide eman behar zaiola, beharrezkoa den erregulazioaren bidez, horien garapena errazten saiatzeko eta nazioko nahiz nazioarteko inbertsiogileen arreta deitzeko balioko duen erakusleiho bat ahalbidetzeko.

5. Nafarroako Parlamentuak nahitaezkotzat jotzen du al bait azkarren taxutu dadin araudi bat, autokontsumorako erraztasunak emanen dituen horrela etxeetako eta enpresetako faktura merkatzeko, "laguntza-sarien" bidez autokontsumoaren garapena eragotzi beharrean”.

Iruñean, 2014ko ekainaren 16an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

F saila:
GALDERAK

Galdera, Nafarroa EAE-Akitania euroerregioan sartzeari buruzkoa.

MANU AYERDI OLAIZOLA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko ekainaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Manu Ayerdi Olaizola jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroa EAE-Akitania euroerregioan sartzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Foru Araubideko Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2014ko ekainaren 16an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Atxiki gabeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizolak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako ahozko galdera hau egin du, Foru Araubideko Batzordean izapidetzeko:

Orain dela urtebete baino gehiago –2013ko apirilaren 24an–, Foru Araubideko Batzordean, parlamentari honek Barcina lehendakariari galdetu zion ea zer asmo zeukan EAE-Akitania euroerregioan Nafarroa sartzeko aukerari buruz, eta orobat gogorarazi zion Nafarroako Parlamentuak berak erabaki bat onetsi zuela, Nafarroako Gobernua horretara premiatzen zuena.

Nire mintzaldian, modu oso positiboan baloratu nituen Euroerregioa sortzeko akordioan jasotako helburuak eta zioak, Lankidetzaren Hitzarmenaren bidez 1989an hasitako esperientziaren ostean (Nafarroak ere 1992tik 2000ra bitarte parte hartu zuen formula horretan). 2011ko akordioan honako hau aipatzen da: "lurralde horietako parte bateko kultur nahiz hizkuntza gertutasunaren nahiz Europar Batasunaren barruko interesen bategite etengabearen bultzadarekin, iraganeko lankidetzaren honek lagundu du, espazio geografikoen barruan –bereziki, Atlantikokoan eta Pirinioetakoan–,

populazioak hurbilazten eta erregio-multzo berri horren identitatea eraikitzen. Esperientzia horretan oinarrituta, López jaunak eta Rousset jaunak Euroerregioa sortu dute, bi erregioen arteko lankidetzan sakontzeko xedez eta truke nahiz proiektu komunaren espazio handi bat sortzen laguntzeko xedez"•

Bere erantzunean, aldiz, Barcina lehendakariak uko egin zion Nafarroa Euroerregioan sartzeari. Hauxe esan zuen: "Euroerregio hau nahi dute, eta jakin egin behar da alderdi bakoitzak zer nahi duen, helburu politikoetarako soilik, eta lehendakari honek ez du zure alderdiaren tranpetan erori nahi". Mintzaldi berean, hauxe gehitu zuen: "Bada guk, jakina, ez diogu ezetza ematen Akitaniarekin edo Euskadirekin harremanak edukitzeari, baina kontu handiz ibili behar dugu, zeren zuek, esan dudanez, tranpa txiki horiek jarrita uzten baitiguzue, gero esateko: hau bazegoen, historiaren parte zen". Eta hauxe ere adierazi zuen: "Guk, Unión del Pueblo Navarrok, ez dugu lagunduko itxura batean kaltegabea den ezertan, baldin eta horrek ekar badezake Nafarroaren, UPNtik pasioz defendatzen dugun milaka urteko erresuma zahar honen errealtate instituzional eta historikoa aldatzea".

Urtebetetik gora joan da harrezkero. Bitarte honetan, Euroerregioa, bere egungo konfigurazioan –EAE eta Akitania–, anbizioz eta erritmo oso onean ari da lanean, bere ahalmenen eta eskumenen esparruan, proiektu eta ekimen oso interesgarriekin; besteak beste, garraio- eta logistika-azpiegituren arloan, adibidez.

Aurten, hedabideen bidez jakin dugu Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernua, bai eta Akitaniakoa ere, harremanetan egon direla behin baino gehiagotan.

Europako funtsak programatzeko aldi bat ere irekitzen da orain –2014/2020–, eta horrek ekarriko du Europaren testuinguruan Nafarroaren aurrerabideari eta etorkizunari laguntzeko proiektuak

bultzatzeko beharra eta aukera. Eta, bestalde, gero eta funtsezkoagoa da Europan eragiteko eta egoteko ahalmena edukitzea, erkidegoaren planak, programak eta erregelamenduak garatzeari dagokionez.

Hori dela eta, hona galdera:

Oraindik uste al duzu egoki izaten jarraitzen duela, Nafarroaren interesei begira, EAE-Akitania Euroerregioan ez sartzeak?

Iruñean, 2014ko ekainaren 6an

Foru parlamentaria: Manu Ayerdi Olaizola

Galdera, Foru Hobekuntzaren 54. artikulua indarrez Nafarroari dagokion Gizarte Segurantzaren kudeaketa propioa ez erreklamatzeko Nafarroako Gobernuak duen jarrerari buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko ekainaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Foru Hobekuntzaren 54. artikulua indarrez Nafarroari dagokion Gizarte Segurantzaren kudeaketa propioa ez erreklamatzeko Nafarroako Gobernuak duen jarrerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Foru Araubideko Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2014ko ekainaren 16an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin du, Nafarroako Gobernuko lehendakari Yolanda Barcina Angulo andreak Foru Araubideko Batzordean ahoz erantzun dezan:

Gizarte Segurantzaren Nafarroako Probintziako Zuzendaritzak ia 2 milioi euro eskatu ostean, Nafarroako Gobernuak eutsi egiten al dio Gizarte Segurantzaren kudeaketa propioa, Foru Hobekuntzaren 54. artikulua indarrez dagokiguna, ez erreklamatzeko bere jarrerari?

Iruñean, 2014ko ekainaren 10ean

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, Industria Planaren prestaketari buruzkoa.

ANA BELTRÁN VILLALBA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko ekainaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Beltrán Villalba andreak aurkeztutako galdera, Industria Planaren prestaketari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2014ko ekainaren 16an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Ana Beltrán Villalba andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera egin du, Nafarroako Gobernuak lehen lehendakariordeak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Parlamentuak, iragan maiatzaren 22an egindako bilkuran, Alderdi Popularrak aurkeztutako mozio bat onetsi zuen. Haren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatu zuen plan ekonomiko-industrial bat presta zezan, produkzio-sektore horretan jarduera sustatzeko.

Mozioaren eztabaidan, UPNren parlamentu taldeak adierazi zuen Nafarroako Gobernuak jada lanean ari zela industria-politika berri bat sustatzeko eta definitzeko, heldu diren urteetako aurreikuspen ekonomikoen arabera.

Eskuratutako informazioa ikusita, hauxe jakin nahi dut:

Nafarroako Gobernuak adierazi zuen lanean ari zela industria-politikako neurri berrietan. Nafarroako Gobernuak zer eredu (plan, estrategia edo beste), taxutze- nahiz aurkezpen-epe, oinarritzko irizpide eta helburu darabiltza Industria Plana prestatzeko?

Iruñean, 2014ko ekainaren 10ean

Foru parlamentaria: Ana Beltrán Villalba

Galdera, Hezkuntza Departamentuak 72/2012 Dekretua mantentzearen inguruan daukan asmoari buruzkoa.

NEKANE PÉREZ IRAZABAL ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko ekainaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nekane Pérez Irazabal andreak aurkeztutako galdera, Hezkuntza Departamentuak 72/2012 Dekretua mantentzearen inguruan daukan asmoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2014ko ekainaren 16an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Nekane Pérez Irazabalek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin du, Hezkuntzako kontseilari Iribas jaunak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Departamentuak ba al du 72/2012 Dekretua mantentzeko asmorik? Hala baldin bada, zeintzuk dira irizpide berriak, kontuan hartuta bai kontseilariak bai Hezkuntzako zuzendari nagusiak guztiz iragankorra zela hitz eman zutela onetsi zenean?

Hezkuntza Departamentuak zergatik egiten die sistematikoki ezikusia 0-3 Plataformaren eta arlo horretako profesionalen iritzia eta irizpideei, 0-3 zikloa berrikusteari dagokionez?

Iruñean, 2014ko ekainaren 11n

Foru parlamentaria: Nekane Pérez Irazabal

Galdera, jakitekoa zer urrats egin dituen Hezkuntza Departamentuak Haur eta Lehen Hezkuntzako ikasleen elikadura-gabeziako kasuak detektatzeko.

NEKANE PÉREZ IRAZABAL ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko ekainaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nekane Pérez Irazabal andreak aurkeztutako galdera, jakitekoa zer urrats egin dituen Hezkuntza Departamentuak Haur eta Lehen Hezkuntzako ikasleen elikadura-gabeziako kasuak detektatzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2014ko ekainaren 16an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Nekane Pérez Irazabalek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, Hezkuntzako kontseilari Iribas jaunak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Departamentuak zer urrats egin ditu Haur eta Lehen Hezkuntzako ikasleen elikadura-gabeziako kasuak detektatzeko? Ezer pentsaturik al daukatzue beharizan horri erantzuteko?

Iruñean, 2014ko ekainaren 11n

Foru parlamentaria: Nekane Pérez Irazabal

Galdera, Gasteiz eta Iruñearen arteko trenbide-loturari buruzkoa.

MANU AYERDI OLAIZOLA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko ekainaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Manu Ayerdi Olaizola jaunak aurkeztutako galdera, Gasteiz eta Iruñearen arteko trenbide-loturari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Foru Araubideko Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2014ko ekainaren 16an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Atxiki gabeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizolak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako ahozko galdera hau egin du, Foru Araubideko Batzordean izapidetzeko:

Ezaguna da gure jarrera, Nafarroako Gobernuari eskatzekoa bere jarrera alda dezan Zaragoza-Euskal Y-a trenbide-ardatzari dagokionez, hala ere moduan non, ibilbide osoan nazioarteko zabalera ezartzearen garrantzia aitortuta, lehentasuna emanen baitzaio betiere eta urgentziaz trenbide misto bat eraikitzeari, nazioarteko zabalarekin eta prestazio behar bezain altuekin Iruñerena eta Euskal Y-aren artean.

Bestalde, Nafarroako Gobernuak hasierako konponbide bat helarazi digu Iruña-Euskal Y-a tarte horri dagokionez –zehazki, Iruña-Gasteiz tarteari dagokionez–, zeinak 2019an prest egon beharko bailuke: hirugarren erreia bat paratzea orain dauden trenbideetako baten gainean, trenbide horretatik trafikoa mistoa igaro ahal izan dadin (nazioarteko zabalera eta iberiarra). Hirugarren erreia horrek 83,65 km hartuko lituzke, Zuastitik Gasteiza. Ildo horretan berean, 2019rako ere

aurreikusita dago Arrizabalagatik (abiadura handiaren amaiera) Zuastirainoko lotura, trenbide misto baten bidez (hirugarren erreia Ezkirotzeraino eta plataforma berri bat Ezkirotzik Zuastira, geltoki berria barne).

Argi dago Iruña-Gasteiz tartarako 2019rako proposatzen zaigun konponbidea ez dela gure aukerarik onena, baina ikuspegi pragmatiko batek argi dago deus ere ez egitea baino nahiago dugula planteatutako proposamena. Askoz ere hobe da Gasteizekin 2019an nazioarteko eta iberiar zabalera konektatuta egotea, ezen ez urte hori heltzea eta iberiar zabalera solik konektatuta egotea, epe motzean nazioarteko zabalera konektatuta egoteko itxaropenik gabe.

Bost urte eta erdi falta dira 2019ko abenduaren 31ra arte. Ematen du asko falta dela, baina litekeena da horrela ez izatea, ezta gutxiago ere. Gobernu buru-belarri omen dabil Arrizabalaga eta Castejón bitarteko hitzarmen indarduna birnegoziatzen –aurreratutakoa berreskuratzeko formulak, aurrekontu-desbideraketak–, baina aspaldi honetan ez du ezertarako ere aipatzen Gasteizerako lotura. Ez dakigu, ezta ere, Europaren zer dirulaguntza-portzentaje izan dezaketen 2019rako aurreikusitako jarduketek.

Hauek dira galderak:

– Jarduketa horietarako ziurtatuta al dago Europako finantzaketa? Aipatu inbertsioen zer portzentaje beteko lukete Europako funtsek? Zeren baitan dago hori?

– Nafarroako Gobernuak zer lan-egutegi dauka arlo honetan, 2019rako planteatutako agertokian Gasteizerako lotura lortu ahal izan dadin?

– Estatuko Gobernuak zer jarrera dauka arlo honetan?

Iruñean, 2014ko ekainaren 11n

Foru parlamentaria: Manu Ayerdi Olaizola

Galdera, Bonelli arranoaren populazioa lehengoratzeko Life Bonelli proiektua aurrera eramateari buruzkoa.

VÍCTOR RUBIO MARTÍNEZ JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko ekainaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Víctor Rubio Martínez jaunak aurkeztutako galdera, Bonelli arranoaren populazioa lehengoratzeko Life Bonelli proiektua aurrera eramateari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2014ko ekainaren 16an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Víctor Rubio Martínezek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazioako kontseilari José Javier Esparza Abaurrea jaunak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Iragan ekainaren 11n, Gobernu Kontseiluaren bilkuraren osteko prentsaurrekoan, Nafarroako

Gobernuak berak iragarri zuen 514.864,79 euroko urte anitzeko gastua baimendu duela 2014-2017 urteetarako, LIFE programaren barruan "Tremedal" eta "Bonelli" proiektuak egin daitezen.

"Life Bonelli" proiektuaren bidez bilatzen da Bonelli arranoaren populazioa lehengoratzeko, baterako programa bat eginez espezie horren Iberiar Penintsulako eta Balearretako banaketa-eremuko zenbait populaziotan.

Hori dela eta, parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

- Nafarroako Gobernuak dakienaren arabera, Nafarroan dagoen edo eragin-eremua Nafarroan ere baduen Bonelli arranoaren bikote egonkorrik ba al dago?

- Nafarroako Gobernuaren ustez, bateragarriak al dira "Life Bonelli" proiektuaren helburuak eta Mendabia II proiektu hidroelektrikoa? Izan ere, gutxienez ere bikote egonkor bat dago Errioxaren ertzeke igeltsuzko horma bertikalean, proiektu horrek nahiz zentral horri atxikirik joanen diren goi tentsioko linea elektrikoak ukitutakoetan.

Iruñean, 2014ko ekainaren 12an

Foru parlamentaria: Víctor Rubio Martínez

Galdera, industria berrabiarazteko planari buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko ekainaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, industria berrabiarazteko planari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko ekainaren 16an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Parlamentari honek Nafarroako Gobernuari eginiko galderak (8-14/PES-00104) hau zioen:

"Nafarroako Gobernuak Politika Ekonomiko eta Enpresarialaren zuzendari nagusiak, María Jesús Valdemoros andreak, agerraldia egin zuen Parlamentuan iragan apirilaren 15ean, ezagutarazte aldera 2013an zehar ekintzailatza sustatzearen eta enpresa-jarduera dinamizatzearen arloan garatutako neurriak nahiz legegintzaldiaren amaiera arte aurreikusitakoak, eta haxe adierazi

zuen: "aurreko urteetako jarduketak osatu beharra dago, industria berrabiarazteko plan baten bidez".

Hori dela-eta, haxe jakin nahi dut:

- Industria berrabiarazteko plan horren kronograma.

- Aipatu planera bideratutako aurrekontua.

- Industria berrabiarazteko planaren esparruan zer eragileretik lankidetzat dagoen edo egonen den.

- Nafarroako Gobernuak horri buruz darabilen dokumentazio guztia".

Jasotako erantzunean ikusten dugu ez diela heltzen parlamentari honek eginiko galderari; are gehiago, zalantza dugu ea mantendu egiten den Valdemoros andreak egindako baieztapena ("aurreko urteetako jarduketak osatu beharra dago, industria berrabiarazteko plan baten bidez"). Hortaz, 8-14/PES-00104 galdera errepikatzen dugu, jarraian galderak ahal den gehiena zehaztuta, Nafarroako Gobernuak erantzun ditzan:

- Kronogramarik ezarri al da industria berrabiarazteko plan hori egiteko? Zein?

- Plan horretarako aurrekonturik ezarri al da? Zein da aurrekontua?

- Beste eragile batzuekin lan egiten ari al zarete edo lan egingen duzue, industria berrabiarazteko planaren esparruan? Norekin?

Azkenik, Nafarroako Gobernuari eskatzen diogu galderan eskatutakoari lot dakion oraingoan.

Iruñean, 2014ko ekainaren 12an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, udalen jabetzako ikastetxeetan obrak egiteko laguntzen deialdiari buruzkoa.

MIREN JULIA ARANO A ASTIGARRAGA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko ekainaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miren Julia Aranoa Astigarraga andreak aurkeztutako galdera, udalen jabetzako ikastetxeetan obrak egiteko laguntzen deialdiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko ekainaren 16an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Miren Aranoa Astigarraga andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

- Nafarroako Gobernuak zer datatan aurreikusen du onestea udal jabetzako ikastetxeetan obrak egiteko laguntzen deialdia, aurten 400.000 euroko aurrekontua daukana?

Iruñean, 2014ko ekainaren 10ean

Foru parlamentaria: Miren Aranoa Astigarraga

Galdera, Gizarte Segurantzaren Diruzaintzak Nafarroako Gobernuari egindako erreklamazioari buruzkoa.

MANU AYERDI OLAIZOLA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko ekainaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Manu Ayerdi Olaizola jaunak aurkeztutako galdera, Gizarte Segurantzaren Diruzaintzak Nafarroako Gobernuari egindako erreklamazioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko ekainaren 16an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Atxiki gabeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizolak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera

aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak kasuko departamentuak idatziz erantzun dezan:

Hedabideen bidez jakin dugu Gizarte Segurantzaren Diruzaintzak ia bi milioi euro eskatzen dizkiola Nafarroako Gobernuari. Zehazki, argitaratutako informazioaren arabera, Gizarte Segurantzak 1,1 milioi euro inguru eskatzen ditu Lehendakari-tza, Justizia eta Barne Departamentuko enplegatuei emandako "familia laguntza" prestazioagatiko kotizazioak direla-eta; gainerakoa, 800.000 euro inguru, arau-hauste larriengatik Diruzaintzak Foru Gobernuari ezarritako zehapenari legozkioke.

Auzia heldu da "familia laguntzaren" zerga-tratamendua aldatzen duen araudi-aldaketa batetik; izan ere, kotizazio-oinarritik salbuetsita egotetik PFEZ atxikipena eta Gizarte Segurantzaren kotizazioa duen errentatzat hartua izatera igaro da, Gizarte Segurantzaren Diruzaintzak berak Nafarroako Gobernuari 2012ko apirilaren 26an jakinarazi zionez.

Iragan maiatzean, Gizarte Segurantzaren Diruzaintzaren erreklamazioaren aurkako errekur-

tsoa paratu zen, Nafarroako Auzitegi Nagusian, Gizarte Segurantzak bere erabakian aplikatutako irizpideekin ados ez egoteagatik Foru Gobernuak Estatuko kasuko erakundean jarritako zazpi errekerimenduak baztertuak izan ostean.

Gaiaren bilakaeraren eta Nafarroako Auzitegi Nagusiaren ebazpenaren zain,

• Nafarroako Gobernuak zer balorazio egiten du sortutako egoerari buruz?

Iruñean, 2014ko ekainaren 10ean

Foru parlamentaria: Manu Ayerdi Olaizola

Galdera, ikastetxeetan pedikulosiaren ondoriozko infekzioei aurrea hartzeko eta haiek kontrolatu eta saihesteko hartu diren eta hartu nahi diren neurriei buruzkoa.

ANA BELTRÁN VILLALBA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko ekainaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Beltrán Villalba andreak aurkeztutako galdera, ikastetxeetan pedikulosiaren ondoriozko infekzioei aurrea hartzeko eta haiek kontrolatu eta saihesteko hartu diren eta hartu nahi diren neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko ekainaren 16an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Ana Beltrán Villalba andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

– 2013-2014 ikasturtean Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxeetan pedikulosiaren ondoriozko infekzioei aurrea hartzeko eta haiek kontrolatu eta saiheste aldera hartutako neurrien xehetasunak, eta 2014-2015 ikasturtean eginen diren jarduketan aurreikuspena.

Iruñean, 2014ko ekainaren 11n

Foru parlamentaria: Ana Beltrán Villalba

Galdera, Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salak 2012ko apirilean emandako epaia betetzeari buruzkoa, zenbait errepide tarte konpontzeari dagokionez.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko ekainaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salak 2012ko apirilean emandako epaia betetzeari buruzkoa, zenbait errepide tarte konpontzeari dagokionez.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko ekainaren 16an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

- Nafarroako Gobernuak zer epetan aurreikusten du betetzea Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salak 2012ko apirilean emandako epaia, eta hartara konpontzea 10.625 metro koadro galtzada, NA-5100 errepidearen (Garinoain-Leotz), NA-5161 (Sansomain-Benegas-Amatriain), NA-5154 (Uzkietako adarra) eta NA-5163 (Sansoingo adarra) errepideen artean banatuak?

Iruñean, 2014ko ekainaren 12an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, Europar Batasunak 2014-2020 aldirako emandako egiturazko funtsen exekuziorako oinarritzko proposamenari buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko ekainaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Europar Batasunak 2014-2020 aldirako emandako egiturazko funtsen exekuziorako oinarritzko proposamenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko ekainaren 16an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Iragan ekainaren 11n, Nafarroako Gobernuak ezagutzera eman zuen Ekonomia Departamentuak bere oinarritzko proposamena taxutu duela, Europar Batasunaren 2014-2020 aldirako egiturazko funtsen exekuzioari buruzkoa.

Nafarroako Gobernuak bere web orriaren bidez informatzen duenez, kontsulta-talde batek parte hartu du dokumentu horiek prestatzen (sindikatuak, tokiko ekintza taldeak, enpresaburuen elkarteak, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioa eta Nafarroako Berdintasunerako Institutua).

Hori dela-eta, hauxe jakin nahi dut:

1.- Zer irizpide baliatu dira sindikatuek, tokiko ekintza taldeek, enpresaburuen elkarteek, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak eta Nafarroako Berdintasunerako Institutuak osatutako taldean parte hartzeko prozesuan, zeinei kontsulta egin baitzaie?

2.-. Nork eta zer erakunderen izenean parte hartu du kontsulta-talde horretan?

3.- Zenbat bilera egin dira? Bilerak zer egunean eta non egin diren zehaztea eskatzen dut.

Iruñean, 2014ko ekainaren 12an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

“Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.M.P.” izeneko sozietatearen administrazio kontseiluaren erabakia.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko ekainaren 16an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusita "Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.M.P." izeneko sozietatearen administrazio kontseiluak 2014ko maiatzaren 14an hartutako erabakia, "Hizkuntzen Autoikaskuntzarako Nafarroako Zentroa (CNAI) S.A." sozietatearen akzioen eskualdatzeari buruzkoa, eta kontuan hartuta Lehendakaritzaren ebazpena, zeinaren bidez arautzen baita Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa sortzeari buruzko Foru Legeko 12.1 artikulua aipatzen dituen sozietate-eragiketak baimentzeko jarraitu beharreko prozedura (2014ko urtarrilaren 9ko 3. NPAO), honako hau ERABAKI DA:

1. "Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.M.P." izeneko sozietatearen administrazio kontseiluaren erabaki hori Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

2. Ekimena Foru Araubideko Batzordeari helaraztea, eztabaidatu eta bozkatzeko.

Iruñean, 2014ko ekainaren 16an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.M.P. izeneko sozietatearen administrazio kontseiluaren erabakia

Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.M.P.ko administrazio kontseiluaren erabakia.

Lourdes Goicoechea Zubelzuk, kontseilari delegatua den aldetik –hala ageri da jasota Iruñeko notario Rafael Unceta Morales jaunaren aituzinean 2012ko azaroaren 14an bere protokoloko 1769 zenbakiarekin formalizatutako eskritura publikoan–,errespetuz

AZALTZEN DU

Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoaren borondatea dela, bere administrazio kontseiluak 2014ko maiatzaren 14an egindako bilkuran aztertutakoaren ondoren, behar den prozedura abiaraztea "Hizkuntzen Autoikaskuntzarako Nafarroako Zentroa (CNAI) S.A." sozietatearen akzioak eskaintza hoberena aurkezten duen hirugarren bati eskualdatzeko. Hori baino lehen, dagokion deialdia argitaratuko da Nafarroako Kontratazio Atarian.

Abuztuaren 7ko 28/2013 Foru Legeak aldatutako ekainaren 18ko 8/2009 Foru Legeak, bere 12. artikuluan, ezartzen duela Nafarroako Parlamentuaren alde aurreko baimena behar dela honako kasu honetan: "Sozietate publikoetako partaide-tzak eskualdatzea edo besterentzea Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa edo Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa osatzen dutenez beste pertsona batzuei."

Xede horrekin, Hizkuntzen Autoikaskuntzarako Nafarroako Zentroaren kapital soziala osatzen duten akzioak eskualdatzeko prozesua arautzen duten oinarriak prestatu direla.

Hizkuntzen Autoikaskuntzarako Nafarroako Zentroaren gaineko balorazio-txosten bat dagoela, entitateak baloratzen aditua den AFI, S.L. enpresak egina.

Hori dela eta,

ESKATZEN DU

1. Nafarroako Parlamentuaren baimena, "Hizkuntzen Autoikaskuntzarako Nafarroako Zentroa (CNAI) S.A."sozietate publikoaren akzioak eskualdatzeko, agiri honekin batera doan I. Eranskinetako oinarri arautzaileen arabera, pertsona fisiko edo juridikoari/juridikoei. Salmentarako gutxieneko prezioa izanen da AFI , S.L.k prestatutako txostenean agertzen den enpresa-balorazioa. Txosten hori II. Eranskin gisa gehitu da.

2. Nafarroako Gobernuko Lehendakartzara igortzea lehendabiziko akordioan aipatutako eskaera, "Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.M.P." izeneko sozietatea sortzeari buruzko ekainaren 18ko 8/2009 Foru Legearen 12.2 artikulua aplikatuz, artikuluko horri dela-eta abuztuaren 7ko 28/2013 Foru Legeak emandako idazketaren arabera.

Iruñean, 2014ko ekainaren 5ean.

Kontseilari delegatua: Lourdes Goicoechea Zubelzu

(Oharra: Aipatutako eranskinak eskuragarri dituzte foru parlamentarietako, parlamentu-kudeaketarako Ágora sisteman. Espediente-zenbakia: 8-14/CDP-00004)